



JONDEko musikari gazteak, Edmond Colomer orkestrako zuzendariarekin.

JONDE orkestraren kontzertuak Gasteiz, Donostia eta Arrasaten

Errepertorioa prestatzeko topaketa bukatu berri du Zestoan

Espainiako Orkestra Gazte Nazionala (JONDE) Gasteizko Principal antzokian ariko da gaur, Donostian bihar eta Arrasaten etzi. Hilaren 2an Zestoan (Gipuzkoa) errepertorio sinfonikoa prestatzeko topaketa hasi eta atzo amaitu zuten Edmond Colomer zuzendariaren esanetara.

izango da Alfarok antolatuko duen azken kontzertua, dirulaguntza eza dela eta. Donostiakoa, bihar, Victoria Eugenia antzokian egingo da, eta Arrasatekoa, berriz, Amaia antzokian. Colomer izango da lehen bi kontzertuetako zuzendaria, eta Jesse Levine, berriz, Arrasatekoan.

Hiruretan Espainiako Orkestra Gazte Nazionala (JONDE) musikari programari bera joko dute. Lehen zatian Beethovenen *Biolin eta orkestrarako kontzertua* interpretatuko dute, Daniel Hope biolin jolea bakarlarik gisa ariko delarik. Bigarrenean, Txai-kovskiren *Laugarren sinfonia* interpretatuko dute.

Daniel Hope 21 urteko musikaria da, lau urte soilik zituela biolina jotzen ikasten hasi eta 11 urterekin Yehudi Menuhin maisuarekin jo zuen. Halaber, beste

teak beste, Rostropovitx, Christobal Halfter eta Hans Graf zuzendariarekin ere jo izan du, Donostian ere aritu delarik. Gaur egun Zajar Bron pedagogo errusiarrekin dihardu.

Gehienak euskal herritarrek dira JONDEn • JONDEk Espainiako Estatuko musikari gazteak biltzen ditu —orotara 90— eta gehienak Hego Euskal Herrikoak dira, valentziarrekin batera, guztira 20.

Orkestra honek lau topaketa egin ohi ditu urtero; bi, musika sinfonikoa prestatzeko, eta beste bi, ganbara musikari heldzeko. 1996ko aurrena egiteko Zestoako bainuetxea hautatu dute, eta bertan izan dira urtea hasi zenez geroztik 90 musikariak, eta zazpi irakasle, Colomer zuzendariarekin batera. X

Laburrean

■ Ur taldeak zabalduko du gaur Ordizia, Beasain eta Lazkaoko Antzerki Garaia

UR antzerki taldearen *Romeo y Julieta* emanaldiarekin zabalduko da gaur Ordizia, Beasain eta Lazkaoko udalek, Euskadiko Antzoki Sarearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, antolatutako Antzerki Garaia antzerkialdia. Beasaingo Usurbe antzokian izango da Ur taldearen gaurko emanaldia, 22.15etan. Euskarazko lehen emanaldia Tanttaka taldearen *Umekeriak* izango da, urtarrilaren 19an, Lazkaoko Areria antzokian, ordu berean. Guztira, apirilaren 26ra bitartean, hamar antzezlan ikusteko aukera izango da Antzerki Garaian zehar. Ur eta Tanttaka taldeen aipatutako obrez gain, honako hauek ikusi ahal izango dira: Orain taldearen *Besarka gaitetzen Folleville*, Akusa taldearen *Fran V*, In Fraganti taldearen *Oleanna* eta *Hamaika trikimailu*, Tanttaka taldearen *El pensil florido*, Sobradun taldearen *Herminio y Miguelito*, Eolo taldearen *Flash Bang* eta Gorakada eta Paparote taldeen *Buenas noches*. X

■ Bilbok badu Inauterietako kartela

USTEKABEKOA zen Abel Rocha madrildarrak aurkeztu zuen kartelaren izenburua, eta horrela gertatu zen gutunazala zabaldu eta irabazlearen izena jakin zenean. Publizista, artista, konpartsen ordezkari eta zinegotzi batek osatutako epaimahaiak ez zuen adostasunik lortu, Nerea Urkirik aurkeztutako kartelak bost epaimahaidetik biren botoa jaso baitzuen. Edozein modutan, epaiak aintzat hartzen du euskararekiko kezka, irabazlearen karteletik kanpo geratzen baita gure hizkuntzan dagoen leloa. Epaimahaiak egileari igorriko dio kartela, zuzenketa hori aintzat har dezan. Argazki zati, marrazki eta pintura atalez osatutako collage-an Inauterietan moztortzera gonbidatzen duen aurpegi bat agertzen da. Aukeraketaren ostean, Kultura zinegotziak eta epaimahaiakideek eskaintutako prentsaurrekoan kartelen maila ona azpimarratu zuten. Aipaturiko bi lanak eta Octavio Whitehead getxotarrarena izan ziren azken txanpara heldu ziren hiru kartelak. X

■ Jazzle elkarteak antolaturik, jazzaren historiari ikastaroa hasiko da Donostian

JAZZA maite duten musikazaleek jazzaren historia hobeto ezagutzeko aukera dute, Jazzle elkarteak antolatu duen ikastaroari esker. Urtarrilaren 23an hasi eta ekainera arte iraungo du ikastaroak, hamabostean behin saio bat eginez, asteartean, 20.00etatik 21.30etara bitartean. Beraz, guztira hamabi saio osatuko dute ikastaroa, eta ikasleek jazzaren historiari izan dituen korrante eta joera nagusien berri izango dute, eta baita joera bakoitzeko ordezkari behinena lanak hobeto ezagutzeko aukera ere. X

■ Alfred Kazin izan da Truman Capote saria jaso duen aurreneko literatur kritikaria

ALFRED KAZIN literatur kritikari estatubatuarra izan da Truman Capote sariaren lehen irabazlea. Sari hau Truman Capotek berak sortu zuen, adiskide min izan zuen Newton Arvin literatur kritikaria ohoratu nahian, eta literatur kritikarekin lana ezagutu eta aitortzeko, baina orain arte ezin izan zaio inori eman Jack Dunphyk, Capote zenaren lagun eta oinordeko bakarrak, eragotzi duelako. Dunphy iaz hil zen, eta horregatik aurten ez da oztoporik izan Capote saria emateko. X

IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

<p>31 x 33 mm</p>	<p>31 x 33 MODULO (Araba-Nafarroa) Eguna: 1.850 pta Astea: 1.500 pta 2 aste: 1.300 pta Hilabetea: 950 pta</p>	<p>O.H.O.ko MAISU BAT behar dugu, klase partikularrak emateko. 330265 - gauetan</p>	<p><i>Titiriteroak</i></p> <p>Antzerkia Haur berbena Zirko Tailerra</p> <p>908772347 (943)467597</p>	<p>BIDAIAK tep SKI 96</p> <p>ASTEBURUAK AUTOBUSEAN BAQUEIRA: 14.950 pta. BARNE: AUTOBUSA + 2 GAU OSTATU ETA GOSARIAREKIN + OSTATU ERDIA + FORFAITA. BAQUEIRA 2 EGUN. CAUTERETS: 12.200 pta. BARNE: AUTOBUSA + 2 GAUTARAKO OSTATUA + 2 EGUNETARAKO FORFAITA + MAINDIREAK + TASAK. ST. LARY: 13.600 pta. BARNE: AUTOBUSA + 2 GAUTARAKO OSTATUA + 2 EGUNETARAKO FORFAITA + MAINDIREAK + TASAK. ASTUN-CANDANCHU 8.975 pta. BARNE: AUTOBUSA + 2 GAUTARAKO OSTATUA + 2 EGUNETARAKO FORFAITA.</p>	<p>EGUNEKO ESKIA LARUNBAT ETA IGANDEETAN IRTEERAK: IRUN, ERRENTERIA, DONOSTIA -CANDANCHU 3.650 PTA. -ASTUN 4.200 PTA. -CAUTERETS 4.150 PTA. -GOURETTE 3.950 PTA. -BAQUEIRA 5.700 PTA. -BARNE: AUTOBUSA + FORFAIT-A + GIDA</p> <p>ALPEAK URTARRILAREN 12tik 21era 49.900 PTA. BARNE: -Ostatua 5 pax-eko estudiantan -6 egunetarako eski forfait-a, Espace Killy -Bidaia autobus literadunearn -Mairidireak</p>
<p>66 X 69 4 MODULO (Gipuzkoa - Bizkaia) Eguna: 9.800 Astea: 7.800 2 aste: 7.000 Hilabetea: 4.800</p>	<p>31 x 33 MODULO (Iparraldea) Eguna: 18 l. Astea: 16 l. 2 aste: 14 l. Hilabetea: 11 l.</p>	<p>31 x 33 mm</p>	<p>31 x 33 MODULO (Gipuzkoa-Bizkaia) Eguna: 2.450 pta Astea: 1.950 pta 2 aste: 1.750 pta Hilabetea: 1.200 pta</p>	<p>Erreserbak telefonoz: 46 16 08 Urbietan, 59 - Tel.: 46 06 88 - DONOSTIA - San Martzial, 1 - Tel.: 42 00 71</p>	